



HONDAKINEN AUTOKUDEAKETA

Herritarren konposta: ongarriaren iraultza



Auzokonpostan **211 familiak** parte hartzen daute gaur egun, **6 gune desberdinetan** eta banatutako konpostagailu kopurua, **675 dira** (autokonpostatzaile)



AUZO-KONPOSTA



Oñatiko Udala





TOLOSA ZERO ZABOR

Tolosako Izaskun auzoko herritarrak, elkarlanean konpost egiteko udalak prestatu dien gunearen estreinaldian.

Konpostgileak: birziklatzen txapeldun

Modan dago konpost egitea. Ingurumenaz kezkatutako familia aitzindarietatik Meta ortu ekologikoa lantzen duten baratzezainetatik askoz haratago, milaka familiak ekin diote hondakin organikoak berrerabiltzeko dagoen era merke, errez eta garbienari. Gipuzkoan eta Nafarroako Sakanan hondakinen kudeaketaren osagai funtsezkoa bilakatu da konpost egite autogestionatua.



■ Egilea: Pello Zubiria Kamino

Azala: Garbine Ubeda Goikoetxea · Maketazioa: Antza Komunikazio Grafikoa

LARRUN pentsamendu aldizkaria ARGIArekin batera banatzen da. **Zuzendaria:** Estitxu Eizagirre Kerejeta. **Jabea:** Komunikazio Biziagoa S.A.L. **Helbidea:** Zirkuitu ibilbidea, 15. pabiloia 20160 Lasarte-Oria **Posta elektronikoa:** larrun@argia.com **Telefonoa:** (00 34) 943 37 15 45. **Inprimategia:** Antza Komunikazio Grafikoa (ARGIAren 2.388. zenbakiarekin banatua, 2013ko urriaren 27an)

Herri “normaletatik”, hots, hondakinen hamaretetik zazpi edo zortzi zabor nahasitan zaborte-gietara eta errauste plantetara bidaltzen dituzte-netatik iritsitako bisitariak haluzinatu behar dute Gipuzkoako eta Nafarroako zenbait kaletan aurkitutako etxolekin eta hesiz inguratuta konpostontziz betetako guneekin. Etxeetako zaborrak pilatuta kalean utzi? Udalak baimenduta? Zer diozu, udalak sustatu eta hobariz sarituak? Eta gero hortik lur gozoa ateratzen dutela?

Kazetari honi 2009an, bere herritarren artean konpostatzea sustatzeko erakusketan ari zela, adineko gizon zahar bat haserretu zitzaion prozesua esplikatzeari: “Zuk esan behar didazu hau [organikoa] bota eta geroago hau [konposta] ateratzen dela? Tontotzat naukazu, ala? Zoaz *por-kulo* hartzera?” eta alde egin zuen gaztelaniaz marmarka.

Ezjakintasuna ez da desagertu bost urteotan. Are okerragoa, herritarren gidari izan nahi duten hautetsi eta politikoen ahotan oraindik entzuten dira astakeria galantak konpostatzea den prozesu arruntaren gainean: zikina dela, txerri-tokia, higie-ne arazoak, arratoiak... Urte luzez jendearen buruetan itsatsitako fobiak eta aurreiritziak ez dira bi egunetan ezabatzen. Baina aipatu purrustada entzun zuen herri horretan bertan, Gipuzkoako Hernanin (19.000 biztanle) oraintxe

bertan lau parke publikotan birziklatzen dituzte beren organikoak 70 familiak, ziento pare bat gehiagok dauka izena emana, udalak urtea bukatzerako gune berriak antolatuko ditu eta, horiei gehiturik norik bere baratzean edo lorategian egiten dutenak, 2014. urtean 1.000 familia baino gehiagok egingo du konposta. Hormigoi eta asfalto tartean bizi diren 7.000 familietatik 1.000 konpostatzen, ez bada hori iraultza...

12.000 FAMILIA GIPUZKOAN

Usurbil Zero Zaborreko militantea den Joxe Mari Irazustaren laguntzarekin osatu ditugu Gipuzkoako estatistikak, oraindik mankomunitate guztiek ez baitituzte datuak elkarrekin eskaintzen. 2010ean Gipuzkoa osoan 6.003 familiak egiten zuten konposta. Zifra horrek biltzen zituen mankomunitateek birziklatzea sustatzeko egin kanpainetan ontzia eta bestelako tresnak jaso eta ikastarora azaldu zirenak, kontabilitate guztietatik kanpo geratuz beren kontura tresnak erosi edo *brikolatu* dituztenak. 2010eko zifra hura arras aldatu da denbora gutxian: 6.003 familia haiek hiru urte eta erdian, 2013ko abuztuaren 11.563 izatera iritsi dira. Urtea amaitzerako 12.000koa ondo gauditua izanen da.

Kendurik Nafarroako Baztan-Bidasoa bailara eta

Mundu jasangarri baterako erantzunak



Ingurugiro
zerbitzuak



Etxe eta auzo
konpostaketa
Vermikonpostaketa



Auzo konpostaketa
guneen mantentzea



Bilketa selektiboa



Avi-compo

www.vermican.com - info@vermican.com - +34 948 27 63 10

vermican

Sakanaldea, aurrerago aipatuko duguna, ez da inon ikusi horrelako aurerakadarik. Zer gertatu da berezia Gipuzkoan eta Nafarroako bi eskualde horietan Durangaldean edo Amikuzen gertatu ez dena? Gaikako bilketa orokortuan hasi direla herri batzuk, gehiago hastear, eta denetan zaborteziak eta errauste plantak behar dituen *betiko* kudeaketa hobe batez ordezkatu nahia.

Gipuzkoako errausketaren kontrako borroka eta Sakanako Olatzagutiako zementu fabrikaren hondakinak erretzearen aurka piztuak, kontrako protesta soila izatea gaindituta alternatiba eraikitzea ekarri dute. Kontraesan eta gorabehera handi askorekin, ez gara hemen luzatuko ARGIAko irakurleak ondo ezagutzen duen hondakinaren inguruko gatazkaz. Liskarrak liskar,

TXERRI-JANA ZUZENEAN PROTEINA

Hondakin organikoari zerbaitengatik esaten zitzaion duela gutxi arte *txerri-jana*. Zenbait herritan hori berriro txerrien edo oiloen bazkatzat erabiltzen hasi dira. Orendaingo udalak *Ttip* eta *Ttup* txerriak ezarri ditu itxitura batean, herriko elkarte-ko kideek beren otorduen soberakinez alhatu ditzaten. Oiloen erabilera, berriz, Iruñerriko Noaindik hasi da zabaltzen, ingurumen gaiez okupatzen den enpresa batek sustaturik.

Logika osoa du organikoak abereei emateak. Aziendak dauzkaten baserritarrek oraindik hala baliatzen dituzte jakien soberakinak, txerriei bezala behiei, asto edo zamarietara eta batik bat oiloetara emanez. Duela urte gutxi etxez etxe esne partiketan ibiltzen ziren laborariek eraman ohi zuten *txerri-jana* baserrira itzultzean.

Familia baten hondakinaren %40a den organikoak horrela berrerabiltzekotan, espezieen artean hautatzen hasita, dakitenen ustean soluzio erradikalena hegaztiak eskaintzen dute, emandako guztia *linpio* uzten baitute; "dena jaten dutela" esan ohi den txerriak berak moko finagokoa ak dira, zer esanik ez behiak eta zamariak. Oilotegian, ordea, beste inork nahi ez duen platan azalaren arrastorik ere ez dute utziko.

Ohiko konposta egiten duten herritarrek landarea

elikatuko duen lurra aberasteko gaia sortzen dute. Aldiz, animaliei organikoak askan eskaintzen dietenek konposta-lurra-landarea urratsak jauzi batez gainditu eta zuzenean bihurtzen dituzte proteina, izan haragi edo arrautza. Haragiaren kasuan, norberak etxean darabilenean sistema, honek ez dio arazorik sortuko okela aprobetxatzeko, ez bada animalia hiltzeko trantzea. Baina organikoak animaliei kudeaketa publikoan ematen zaienean, Orendaingo *Ttip* eta *Ttupen* kasuan adibidez, oraingo ez ingo da okela hori zirkuitu komertzialean sartu, behi eroen istilutik landa oso zorrotz daude higie-ne arauak munduan... salbu eta granja industria-lentzako, horiei baimentzen baitzaie gero era masiboan komertzializatzen diren aziendak edozein zerrikeriaz alhatzea.

Horretan ere oiloak irabazle. Iruñerriko Noaingo kasuak erakutsi duenez, arrautzek ez dute horrelako buruhausterik ematen. Auzolanean konposta egiteko aukerarekin batera oilategi bateko hegaztiak organikoak elikatzea ere eskaini die

herritarrei udalak. Familiok instituzioei aurrezten diete astero beren hondakinaren %40 bildu eta tratatzea, eta trukean udalak arrautzak oparitzen dizkie kanpainen parte hartzen dutenei. Dena da abantaila: proteina (haragia eta arrautzak) eta zizareek konpost bihurtuko duten zirina.



BOUVIER SANDRINE

Oiloak sukaldeko hondarrak jaten.

Atez Atekoaren eta etorkizunerako izen hori gabe aztertzen ari diren beste bilketa sistema berrien oinarrietan dago bilketa orokorra eta pertsonalizatua izatea. Honi esker, udalek eta mankomunitateek saritu ditzakete organikoarekin konposta egiten dutenak.

Pertsonalizatuak ez diren sistemetan, edukion-tzizkoetan, gizarteak zigortu egiten du ondo ari

dena eta axolagabea saritu, denei tasa bera ordainaraziz. Sistema berriak herritar guztiak behar-tzeaz gain bereizketa xuxen egitera, zebra-bideak errespetatzera bezalatsu, posible egiten du bereiztea nork egiten duen konposta etxean. Eta ahalegina saritzea. Saritu?

Dudarik gabe, etxeko hondakinen %40 hori era autogestionatuan berrerabiltzen duenak gizarte-

KONPOSTATZEA HITZ BITAN

“Konpostatzea = soberakinak lur bihurtzea”, horra definizio hiperlaburra. Laburregia ote? Naturak landare eta abereki oro bihurtzen du konpost, horretarako behar duen denbora hartuta. Naturari lan egiten uztea da kontua, edo lan eginaraztea.

Milaka urtez beren azienden simaurrak pilatu eta irauliz konpost bihurtu dituzten nekazariak damaigute gakoa: uztartu behar dira hondakin lehor eta bustiak, nitrogenoa, ura, oxigenoa eta karbonoa. Ez da beste konplikaziorik. Horixe egiten saiatzen dira era industrialean udalak, mankomunitateak eta hondakin kopuru handiak kudeatzen dituzten enpresak; horretan ari dira bakarka edo auzolanean etxeko “txerri-janak” lur-mutur batean birziklatzen dituzten familiak.

Mendebaldeko familien etxeetan sortzen diren hondakinen %40 edo gehiago organiko bustia da, urez eta nitrogenoz lepo: barazki hondar, lekale, haragi, arrain, fruitu... Baserrietako simaurrak azienden gorotza nahasirik daraman moduan garoa edo lastoa, hiriko konpost-ontziak “egitura-tzailea” behar du. Gai iharrak: orbelak, lastoa, zuhaitz adar birrinduak, kimaketa hondarrak... Sukaldetik konpost-ontzira eramandako gai hezeak ondo nahasi behar dira egituratzaile horiekin.

Horretan datza sekretua konposta ondo, usainik eta xomorrorik gabe egiteko. Adituek esango dizute egokiena dela lorategietan inausitako abarrez egindakoa: masari arnasa hartzea baimen-

tzen dio, karbono-nitrogeno oreka ona bermatzen, ura xukatzen. Lehenik ontzian pilatutako hondakin metatxoa hartzitu egingo da, berotu, patogenoak bezala haziak eta beste akabatuz, konpostatze prozesua abiaraziz. Geroago onddoek eragingo diote eta aski denbora utziz gero zizareek.

Udalerriek konpost-ontziak banatu aurreko ikastaro laburretan erraz ikasten dira xehetasunak. Askotan udalek eskaintzen diete familiei beren ontzietarako beharrezko egituratzaile edo inaurkina, hasierako akats arrunta baita lehor gutxiegi eranstea sukaldeko hondakinari. Konplikazio gehiago ez da, denborarekin bakterioek, onddoek eta zizareek eraldatzen dute organiko oro

Etxeetako barazki edo soropiletan bezala auzolanean sortutako konpost berria non erabilirik ez da falta. Ongarri oso ona da, loregintzarako bezala orturako, lurrari egitura hobetzen dio, hezetasuna atxikitzen laguntzen, higadura gutxitzen, lurreko flora eta fauna ugaritzean patogenoen aurkako landareen erresistentzia handitzen.

Zakurraren edo katuaren gorotzak arriskutsuak direla gaixotasunengatik? Horiek aparteko pila batean lagata –konpost arruntari baino segurtasun epe luzeagoa emateko– inaurkinez ondo nahasturik, denbora kontua baizik ez da eduki ditzaketen xomorroak edo arrautzak desegitea. Zer besterik hasi dira egiten araztegi handi batzuk, hiritarrek sortutako gorotzak depuratu ostean konpostatzera bidaltzen dituztenean?



HERNANIN ZERO ZABOR

Hernaniko udalak herriko periferian ez baina erdi-erdian kokatu zuen lehenbiziko konpost gunea, Pana parkean. Argazkian, auzo-konpostean hasi ziren lehenbiziko herritarretako hiru.

ri aurrezten dizkio bilketako gastuak, garraioak sortutako kutsadurak eta organikoaren tratamendu industrialak. Ordainetan, sari eta guzti ere administrazioari komeni zaio ahalik eta familia gehienak funtzionatzea modu autonomoan, eta badaki ziur koste horiek aurreztuko dituela bilketa pertsonalizatua delako. Oronen buru, Atez Atekoa ezarri duten herrietan, eztabaida eta prozesuak haste hutsarekin biderkatu egiten dira etxeko baratze edo soropilean konpost-ontzia jartzen duten familien kopuruak.

USURBILEK HASI DU HAU ERE

Gipuzkoako eta Sakanako aldeketa handian auzolanean egindako konpostatzea da gakoetako bat. Munduko beste leku askotan ezagutzen den jarduera hau Euskal Herrian Usurbilek estreinatu zuen 2011ko azaroan. Irati Sarasuak astekari

honetan bertan kontatu zuenez, sei familiak ekin zioten konpostatzeari udalak lagatako lurzoru txiki batean. Laster izan ziren 19 eta Sarasuak kronika idatzi zuenerako, sei hilabetera, 65 ari ziren Usurbilen. 2013ko irailean 143 ari dira. 6.107 biztanle dituen herri batean (2.200 familia baino gehiago ez) 650 familiak auzo- edo auto-konposta egiteak esan nahi du herritarren laurdena baino gehiago ari dela bere organikoa kudeatzen. Arrakasta itzela.

Nabarmenezko beste herri bat Oñati da. 2010ean konposta egiten zuten 183 familia bi urte eta erdian pasatu dira 886 izatera. Hemen ere Atez Atekoaren ezartzeak jokatu du orain auto-konposta deitzen den familiakakoa ugartzean eta auzo-konposta egiteko guneek eduki duten arrakastan. Oñatin bilketa berria 2013ko uztailean abiatu zenerako 211 familia ari ziren auzo-konpostean eta itxaron zerrenda ase ezinik



GIPUZKOA ZERO ZABOR

Argazkian, usurbildarrak Andoainen 2012ko Kilometroetan auzo-konposta nola egin erakusten. Herriko lau famuliatik batek konposta egiten duen Usurbil izan da Euskal Herrian bidegile hondakinaren kudeaketaren aldetetan.

zebilen udala, Atez Atekoa eta auzo-konpost guneak eraikitzea dena batean egin nahiz.

Aipatu herriok eta Atez Atekoan hasi direnek hobearazi dituzte nork bere mankomunitateko zifrak ere. Donostialdea hartzen duen San Marko 2010ean 2.617 familia edukitzetik 2013an 3.563ra iritsi da. Urola-Kosta 227tik 456ra. Urola Erdia 400etik 733ra. Debagoiena 790etik 2173ra. Goierriko hondakinak biltzen dituen Sasieta 620tik 1.151ra. Tolosaldea 568tik 2.424ra. Gaikako bilketa orokorrean bezala herritarren konpostatzean ere "azken-putz" ageri dira Debabarrena eta Txingudi mankomunitateak, askoz emaitza kaxkarragoekin.

Kopuru horietan bildu dira, esan dugunez, nork bere aldetik konposta egiten dutenak eta auzolanen ari direnak. Auzo-konposta den fenomeno

berrian parte hartzen hasi direnak aipatzea merezi du, Gipuzkoa bezalako gune oso hiritartuan jarduera hori zabaltzeko bide ia bakarra baita.

Gero eta herri gehiagotan ezarri da aukera berria. San Markoren eremuan (292 familia auzo-konpostean), Donostian bertan 66 familia ari dira jarduera horretan, Lasarte-Orian 15. Urola-Kostan 173. Denen buru hainbeste zalaparta ezagutu duen Zumaia, 117 familia auzo-konpostean jarrita. Urola erdian (220) badira Azpeitian (57) eta Azkoitian (19), baina tarte handiz doazkie aurretik askoz txikiagoak diren Zestoa (81) eta Aizarnazabal (63).

Debagoiena (505) eta Tolosaldea (593) ari dira auzo-konpostean txapeldun. Debagoienako herri guztiek dauzkate auzo-konpost guneak. Tolosaldeko askok ere bai, Tolosan bertan 167

familia, Ibarra 32, Amasa-Villabonan 30, Zizurkilen 41... Tolosaldeko zenbait herri txiki Orendainek hasitako Zero Zabor herrien bidean doanez, horiek aurreraxeago aipatuko ditugu. Gauza bera Goierriko herriak zerbitzatzeko dituen Sasietan mankomunitateari dagokionez: honen estatistikak (44 familia besterik ez auzo-konpostean) kontuz hartu behar dira, bere herri txiki asko Orendaingoaren bidetik hasita daudelako.

Debabarrenean Mutrikun (17 familia) ez beste inon ez dira ari auzo-konpostean. Txingudiko Irun eta Hondarribian bezala. Bi eskualdeok dira Gipuzkoan gaikako bilketan Espainiaren pareko kopuruetan estankaturik geratu direnak.

ORENDAIN, HERRI TXIKIEN EREDU

2012ko azaroan Tolosaldeko Orendain bihurtu zen Gipuzkoako lehenbiziko Zero Zabor herri txikia. Katalunian bezala Europako eta munduko herri txiki askotan egiten denari jarraituz, Atez Atekoan ari direnen emaitzak hobetzeko, gaikako bilketa orokortzeaz gain hondakin organiko guztia herritik atera gabe berrerabiltzeari ekin zioten orendaindarrek. Familia gehienek daukaten lur muturren bat, nork bere sukaldekoa bere gisan konpostatzen du eta kaxkoko batzuek gehi herriko biltokiak sortzen dituztenak auzolanean. Atal berezi batean aipatzen dugu Orendainek antolatutako txerrien bidezko birziklatze berezia, *Tijp* eta *Tup* urdeek bermatzen dutena.

Orendainekin batera hogeita hamar herri gehiago dira Zero Zabor herri bihurtzekotan Gipuzkoan, 15 Tolosaldean bertan. Prentsak orain artean zabaldu du ofizialki sistema horretan ari direla Orexa, Elduain, Altzo eta Leintz Gatzaga. Gainerakoak prozesuaren zein ataletan dauden jakiteko pista ederra auto- eta auzo-konpostgileen kopuruek eskaintzen dute. 446 biztanle dituen Adunan 121 familiak egiten du konposta batera edo bestera, 951 biztanleko Amezketan 300 familiak, 659 biztanleko Lizartzan 115ek...

JAKI HONDARRETAN ALTXORRA

Alfonso del Val hondakineta adituak *La basura puede ser un tesoro* artikuluan gogorarazten du Pío Baroja idazle eusko-madrildarraren pasarte bat, *La lucha por la vida* trilogiako *La buscatik* hartua. Horretan, dio Del Valek, Custodio izeneko traperoa ehun urtez aurreratzen zaio gaur hondakinen gaikako bilketan eta aprobetxatzean oinarritutako sistema deitzen diogunari. Paperak, oihalak, hezurak, botailak eta bestelako ontziak, denak bereizirik eramate omen zituen Custodiok zein bere birziklatze-orduan ez zen hitz horren berririk- lekura. Ogi, barazki hosto eta fruitu hondarrak jasotzen ziren oilo eta zerriendako. Baina Custodioren kezka urrunago zihoan, Barojaren istorioan. "Bere ofizioaren eraginez, traperoa kezkatzen zuen Madrilek alferrik galtzen uzten zuen ongariak. Esan ohi zion Manueli:

- Jabetzen al zara zenbat diru balio duen Madrildik irteten den zabor horrek guztiak?
- Ni, ez.
- Atera itzazu kontuak. Hirurogei xentimo arrobako, ea zenbat arropa bilduko litzatekeen urtean. Zabaldu hori inguruko zelaietan, eraman Manzanares eta Lozoya ibaietako urak haietara eta bertan ikusiko dituzu amai ezinezko baratzak".

1904an argitaratutako *La Buscan* Custodiok esanaren oso antzekoa berretsi du 2013ko udan Janez Potocnik Europar Batasunako ingurumen komisarioak: energiaren urritzeak kezkatzen duen mundua XXI. mendean helduko dela fosforoa murrizten ikustera ere. Gizakiok eta jaten ditugun animaliak elikatze hain beharrezko dugun fosforoa ekoizten duten meategiak beren gorenera (*peack phosphorus*) helduak izango dira. Aldiz, betirako adina fosforo berriztagarri eskueran daukagu baldin eta konpostatzen baditugu gizakion eta gure azien hondakin organikoak oro.

Zero Zabor herri txikiok biztanlez urriak izanagatik Gipuzkoaren eremuaren zati zabala hartzen dute. Eta beren ahotsa sentiarazten hasi dira hondakinen inguruko eztabaidan. Zehazki Tolosaldean mankomunitatean proposatu dute, eta lortu, udal bakoitzak zaborren kudeaketagatik ordaindu beharreko tasaren irizpideak aldatzea.

Ez da logikoa tratamendu garestia eskatzen duen zabor asko (%70-%80) sortzen duen udalerririk batek eta azken errefusa %15era edo gutxiagora murriztea lortu duenak berdin ordaintzea zerbitzua. Familietako konposta sustatzen dutenei udal askok aitortzen dieten bezala beren lana eta ordain-agiritik deskontatzen gizarteari aurrezten diotena, gauza bera egingo du Tolosaldeko mankomunitateak bere udalekin. Esan gabe doa honek asko zentratuko duela balkoietako plastikoen urdinen burrunbak ezkututzen duen hondakinei buruzko disputa: “*Polluter pays*”, kutsatzen duenak paga bitza gastuak eta kalteak.

SAKANAK ASTINDU DU NAFARROA

Nafarroa izana da noizbait, LARRUN batean Alfonso del Val hondakinetan adituak kontatu zuenez, konpost aferetan Euskal Herriko nagusi. 1980ko hamarkada hasieran zen hori, Iruñerriko zenbait auzunetan gaikako bilketa oso aurreratua egon zenean. Urte luzeko itzalaldiaren ostean, Irati Sarasua kazetariak 2011n aipatu zuen nor bere etxean egiten zuten gain, auzo-konpostean ari zirela Egues, Oteitza, Labio, Badoztain, Subitza eta Olatz Nagusiako familia andana bat. Geroztik ARGIAren kontabilitatean Baztango konpost-guneetan 70 familia ari dira auzolanean eta Malerreka-koetan 32.

Sakana da, hala ere, Nafarroak eta ziurrenik Euskal Herriak azken urteotan hondakinen kudeaketan ezagutu duen fenomeno nabarmena. Krisi ekonomikoaz gain Espainiak eta Iruñeko gobernuak berak hain zigorturik daukaten eskualde honetan 2013ko udan, bi hilabetetan, Uharte

Arakil, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranatz, Bakaiku, Iturmendi, Urdiain eta Olaztik gaikako bilketa %76,30raino eraman dute. Baina adierazgarriena da bilketa sistema berrian auto- eta auzo-konpostari eman dioten protagonismoa.

Sakanako mankomunitatearen zifretan, 4.225 familia ari dira konpostgintzan. Eskualdeak 20.768 biztanle dauzkala kontutan izanik, oker handirik gabe esan daiteke sakandarren erdiak baino gehiagok bere hondakin organikoak etxetik edo karrikatik urrutiratu gabe berrerabiltzen dituela.

Proporzioa asko desitxuratzen duen datua: Altsasu (7.691 biztanle) eta Irurtzun (2.302) herriek ez dute orain arte hasi nahi izan sistema berrian. Bietan auzo-konpostean ari diren familiak denetara 89 dira. Gainerako 10.775 sakandarren artean 4.136 familiak egiten du konposta batera edo bestera. Marka kaxkarragoekin ematen dira urrezko dominak.

Kopuruaz gain kalitatez ere garrantzia duten osagaiak oparitu dizkio Sakanak Euskal Herriak bizi duen hondakinen inguruko eztabaidari. Bat hasieran bitxia dirudiena: Atez Atekoa versus organikoarentzako edukiontzi marroia disputa Sakanako arduradunek tenkatu dute argudiatuz “auzo-konposta dela edukiontzi marroia”. Hau da, herritarrak aukera dezake: edo astean hirutan ataririk kendu diezaiotela hondakin organikoa, edo karrikan paratutako konpost-etxolan nahi duenean berak lagatzeko, neke gutxirekin eta hobari baten sariz.

Oharkabean argudio hau ari da funtzionatzen Atez Atekoa ezarritako herri giputz askotan ere, kalean ontzen ari den *txerri-janari* beldurra galdutakoan auzo-konpostak dena baitu abantaila: ordutegi libreagoa, didaktikoa izatea, hobariagatik merkeagoa...

Sakanak euskal gizarteari ekarri dion beste berrikuntza konposta ontzeko etxolena da. Frantzia-



SAKANAKO MANKOMUNITATEA

Etxarri-Aranazeko plaza honetan ateratako argazkikoa bezalakoak dira Sakanako mankomunitateak auzo-konposterako eraiki dituen zurezko etxolak. Politak eta oso eraginkorrak izaki, berehala zabaldu dira Gipuzkoan ere.

ko La Rochelle inguruan herritarren konposta – “*Compost Citoyenne*” – modan jarri duen Saint Philbert de Bouaine herriko sisteman ikasita, sakan-darrek bertako diseinatzaile eta tailerrak jarri dituzte tresneriak antolatzen, eta horietako bat da konpost-etxola zurezkoa, edozein zerrategitan eskura daitekeen zurez era estandarrean erraz eta merke eraikitzeko modukoa, Gipuzkoan hedatzen ari dena orain arte usatzen ziren plastikozko ontzi handien ordainetan. Probatu dutenek goraiatzat dituzte txabolatxo hauen (familia kopuru ezberdinak babestu ditzakeen neurri ezberdinetakoak daude) estetika “gureagoa”, kabiera handiagoa, erabiltzeko erraztasuna eta beste hainbat abantaila.

Neurri handiagoan Gipuzkoa bezala, Sakana izan daiteke Euskal Herriak hondakinen kudeaketan bizi duen bidegurutzearen ispilu txikia. Bertan biltzen dira energia eta zerbitzuen multinazionalekin elkar harturik agintari politikoez

bultzatzen duten errausketa, haren kontrako mugimendua, kudeaketa sistema alternatibo aitzindari bat abian jartzea, honen kontra sututako erreakzioak, agintari eta politikari batzuen epe laburreko kalkuluen inguruko katramilak... Ez da kasualitatea batean bezala bestean hainbeste herritar eta familia hasi izana konposta egiten.

Gaikako bilketa orokortu batek herritarraren ohiturak aldatzea eskatzen du, horren barruan hondakinei beldurra galtzea. Utikan txerri janarekiko fobiak! “Hauek XIX. mendera bihurtu nahi gaituzte atzera” iragarpena, hain erreplikatua izan arren, azaldu da egia ez zela: sukaldeko zaborrak bereizteak konplikaziorik ez duela ikasitakoan, herritar asko jabetu da ataritik administrazioak eraman eta nonbait eraldatzen duen organikoa berak ere bihur dezakeela konpost baratzean edo karrikako ontzi handi batean, errez, eroso eta gainera udalaren deskontu bat gozatuz.

Horregatik ari dira ugaritzen antzeko adibi-deak herri eta hiri guztietan. Aspaldi hasi ziren eskola askotako irakasle eta ikasleen artean jangelako soberakinak konpostatzen, Gernikako Seber Altube ikastolakoek egin bideo politikak erakusten duen bezala. Orain klase guztietako herritarrek egiten dute, baita instituzioek horregatik saririk ematen ez badie ere. Ikusi

dira ale hunkigarriak, Bizkaiko Larrabetzun auzoko bizilagunen hondarrak bilduz ari diren kaleko baratzezainena bezala, bideo xarmanta hau ere. Eta milaka herritar anonimo, lurrari kendua lurrari berreskuratzen ahalegintzen direnak. Iraultza eder bat delakoan gure haurrei uztea guk hartu duguna baino lurzoru pittin bat emankorragoa. ■

SAINT PHILBERT: EZEKOTIK HASITA AUTOGESTIOA ERAIKI

Ezetz esan zuten 2002an. Herrian ez zutela onartuko 60 hektareatako zabortegirik egitea. 2.700 biztanle dauzka Frantziako Vendée departamenduan Saint-Philbert-de-Bouaine herriak, Ar-Naoned (Nantes) inguruan. Eskualde mailako zabortegiari uko egin eta bi urtera, 2002an, konpost eremua jarri zuten martxan Saint-Philberten. 2.500 metro karratuko terrenoa egokitu zuten herritarren sukaldeetako hondakinak konpostatzeko, eta horrekin batera ahalik eta jende gehienak parte hartzeko kanpainari ekin zioten. Bultzagileek herritar guztiekin hitz egin zuten: familia, ostatu, komertzio... Lau urte geroago, herritarren %80k hartzen zuten parte konpostaketan.

ARGIAK "Auzolanean zaborrik ez eta konpost hobea" artikuluan 2007ko abenduan eman zuen Saint Philbertekoaren berri. Honela esplikatu zuen espirtua Jean-Pierre Morisseau zinegotziak: "Politikariek soluzio tekniko eta automatizatuak baizik ez dituzte ikusten, bereizketa mekaniko-biologikoa eta beste. Baina hain zuzen alderantzizkoa egin behar da: gizakietan inbertitu, erabiltzailea bihurtu protagonista".

Saint Philbert herria dago geroztik Frantzian hedatu den Compost Citoyen mugimenduaren muinean. Euskal Herrian gai hau furian jarri baino lehenagotik, herriko etxeen laguntzarekin auzolanean konpostatzen ari ziren Rennesen, Ar-Naonedan, Parisen bertan... Compost Citoyenek Frantziako 70 pertsonalitate eta elkarte koordinatzen ditu.



LE JARDIN BLEU

Parisko parke batean herriko etxeak prestatutako konpost-gunean herritarrek auzolanean.



COMPOST CITOYEN

Saint-Philberten organikoa onduz eskuratutako konposta herritarren artean banatzen dute urtero.

Mundu osoan ari dira hedatzen eta indartzen antzeko sareak. Community Compost Network izenez talde eta sare andana aurki daitezke Britainia Handian, Amerikako Estatu Batuetan eta Kananan. Estatu Espainiarrean Composta en Red elkar-teak lau hizkuntzatan aldarrikatzen du dela "Komunitatean Konposta egitearen aldeko Entitateen Estatuko Sarea".

Gure organiko guztia konpostaturik eta gehiago behar du lurrak

Hondakinen kudeaketaren inguruko eztabaidan sarritan errepikatu da argudioa, gaikako bilketa oso zorrotz (atez ate) zertan eginik ez zela defenditzeko: hainbeste milaka herritarren organiko sortutako konposta non enplegaturik ez genukeela. Konposta soberan.

Zenbait adituk, gainera, uste hori hauspotu dute. Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2002-2016 Plan Orokorrean, PIGRUG famatuan, idatzi zuten Xabier Garmendiak eta Javier Ansorenak: “Gipuzkoan dagoen konpost eskarari dagokionean, esan behar da, apenas dagoela eskaerarik, batez ere ondorengo arrazoiengatik: konpost kopuru garrantzitsuak erabiltzeko gai den nekazaritarik ez izatea...”.

Konpost gehiegi? Horretaz ARGIArako Urko Apaolazak galdeturik (2008ko uztaila) Geomorfologian doktore den José Miguel Edesok azaldu zuen gai organiko gosez daudela Euskal Herriko lurrak, zehazki isuri atlantiarrean intsinis pinu (eta azken aldian eukalipto) monolaborez landa-

tukoak. “Niri baso jabeek esan izan didate –dio Edesok– ez dakitela zer pasatzen den pinuekin, ez direla hazten. (...) Soilik 35 urte daramagu erabilera agresiboekin eta pinuen mozketak bakarrik egin da orain arte. Zer pasako da bigarren mozketak egitean? Pinuak berriz haziko al dira? Edo lurra pobreegia izango da?”.

Euskal Herri osora begira jarririk, hiri ingurueta-ko baratzeek eta oro har nekazarien soroek irentsiko lituzketen konpost mendiez gain, ezin dira ahaztu batik bat Araba eta Nafarroan (baina baita beste lurraldeetan ere) higadura latza nozitzen duten eremuak, jendeen elikadura beharrei bezala klimaren aldaketaren premiak sortutakoei erantzuteko noizbait landarez eta zuhaitzez hornitu beharko direnak. Gainerakoan, Euskal Herria haiek sortutako laborez elikatzen duten inguruko lautada desertifikatzen ari direnek ere pozarren hartuko lukete gure ongaria.

Mundu osoari begira jarririk, lurzorua higidura etorkizunari buruzko arazo larrienetako bat



Ingurumena eta osasuna aintzat hartzen ditugulako, auzo-konposta eginez hondakin gutxiago sortzen ari diren herritarrei eskerrak eman nahi dizkiegu



bihurtu da. Horretara eraman dugu basoak erais-tearekin eta azken mendeko nekazaritza industrialaren desmasiekin. Pedologia den lurzorua zientzian aditu nagusietakoak diren Claude eta Lydia Bourguignonek diote “*Le sol, la terre et les champs*” klasikoan: “Gizakiok sortu dugun higadura are bortitzagoa da klima gogortu ahala. Horrela, Suedian erosio tasa zen hektarea eta urteko 4 tona lur galtzea; Espainian galera 33 tonakoa zen. Kopuruok ‘iraultza berdearen’ [nekazaritza industrialaren] aurretikoak ziren, 1970 baino lehenagokoak, geroztik arau bihurtu baita ongarri eta pestiziden gehiegizko erabilera. Lurzoru galera ere asko handitu da urteotan. Gaur urteko eta hektareako 10 tona lur galtzen du Suediak, 40 tona Frantziak, 60 Espainiak, 100 Magrebek”.

Nekazaritza industrialak ongarri sintetikoekin elikatzen ditu lur antzu bihurtutako soroak, urte-tik urtera *txute* gogoragoak behar dituzten labore kimika-adiktoak haziz. Honetan ere, ordea, panorama are ilunagotzen duen berri txarrik ez da falta. Adituek piztu dute alarma: Nitrogenoak (N), Fosforoak (P) eta Potasioak (K) osatutako ongarri sintetikoen NPK hirutasun sainduan fosforoa laster urritzen hasiko dela.

Ez da alarma anekdotikoa. 2013ko udan, fosforoa ez alferrik galtzeaz Europar Batasunak abia-



TXIMELETA

Nafarroako Bardeetako basamortua da gure inguruan higadurak egindako kalteen adibide deigarriena. Baina itxuraz berdeago egon arren, Kantauri aldeko mendi eta soro askoren lurzorua ere arras hondatu da urteotan.

tu duen galdeketa dela eta, ingurumen komisario Janez Potocnikek ohartarazi du fosforoa berrera-bili beharraz, jakien hondakin organiko eta abereen simaur guztiak konpostatuz.



Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioa

Webgune berria ireki dugu

-  *Itxura eta azpiegitura berria*
-  *Tablet eta mugikorretara egokituta*
-  *E-posta eta Twitter bidez informazioa zabaltzen ere hasi gara*



@GHKInfor

www.GHKinfo.com

KOZINATUAK BAI ALA EZ ?

Oraindik ere konpostatzea sustatzeko hitzaldian agertzen da norbait galdetzen duena: "Niri esan didate kozinatutako janariak ez direla bota behar konpost-ontzira". Are bitxiagoa: Sakanan eta Gipuzkoan milaka familia ari direnean beren sukaldeetako organikoak oro konpost bihurtzen... Txingudiko mankomunitateak 2013ko herritarren artean sustatzen du konpostatzea adieraziz ontzietan ez dela utzi behar ez haragirik eta ez arrainik.

Norbaitek "Txerri-janaren gudua" deitu zuenaren ondorioak dira. 2010ean zenbait herritan konposta egiteko izena emanda zeukaten ehunka familiak hilabete luzez itxaron behar izan zuten Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta San Marko mankomunitateko arduradunen arteko eztabaida noiz bideratuko zain. Konposta egiteko plastikozko ontziak Diputazioak zeuzkan ez erositakoak, honek exijitzen zuen ontziok banatu aurreko ordu eta erdiko ikastaro laburra ere bere teknikariek ematea. San Markok ezetz, ikastaroa haiek emango zutela.

Banatu beharreko eskuliburuetan zetzan gakoa. 2010ean Atez Ateko bilketa sustatzen zuen San Markok aldarrikatzen zuen hondakin organikoaren atalean elikagai guztiak bildu behar zirela, frijitu eta egosiak barne. Hondakinentzako errauskailu handia eraiki nahi zuen Diputazioko zerbitzuak, aldiz, janari kozinatuak ez zirela horiekin nahastu behar, konpost-ontzira barazki gordinak eta hostoak besterik ez.

Demostraziorik behar ez zuena demostratu du geroztik milaka familiak, alegia elikagai organiko oro, gordin edo egosi, ondo bihurtzen dela ongari, baldin eta prozesua arretaz egiten bada. Aldiz, eskuliburu bat erabili edo bestea, hondakinen kudeaketak emaitza txit ezberdinak dauzka. Etxeko hondakinei organiko guztia taxuz kenduz gero, gainerako atalak ondo bildu eta birziklatzen dira, errefusa hondakinen %20 baino gutxiagora murriztuz. Aldiz, organikoarekin ez baina gainerako hondakinekin nahastuta botatzen badira jaki kozinatuak, segitzen dugu zabor kutsagarria sortzen. Tamalez Txingudiraino ez da heldu albistea.

Etxean bakarka edo herri lurretan auzolanean hondakin organikoekin konposta egiten duten familiak gizarte osoaren aitzindariak dira honetan ere. Berek sortutako hondakinen %40 zaborte-

gietatik eta errauskailuetatik apartatu eta merke bezain txukun berrerabiltzeaz gain, ondorengo belaunaldiek elikatze beharko duten lurra ari dira gozatzen. Basamortu bilakatzea saihesten. ■

KONPOSTATUZ
zero zabor
eskualderantz

Zurekin
alde ederra!

Konposta egiten hasi nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:
konpostatu.tolosaldea.org • 943676216 • konpostatu@tolosaldea.org

TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA

**13A
60
AZ!**

GIPUZKOA 2016 > %60 BIRZIKLATUTA